%35a zahartzaroan daude, eta nahiz eta eguneko zentrua izan, eta Udalak Diputaziora eskaera bat egin, ez dugu ezer lortu. Ez da diru kontua bakarrik, gizarte zerbitzuak behar ditugu. beharren mapa horiek jarri martxan mesedez. badakigu gu ere gure esfortzua egin behar dugula. Iritsiko da momentu bat, dependienteak eta banakakoak, batera elkarbizi beharko dutela. mugi txartelaren kopuruak ere jakin beharko genituzke. Urteak	Bai			MUGI sistemak hileko deskontu handi bat dauka lehen bidaiatik hasita; deskontu hori handitzen doa, hilabeteen zehar MUGI txartela erabiltzen den neurrian. Deskontua da: 1-20 bidaiara artean, % 46; 21-50 bidaiara artean, % 57; eta 51 bidaiatik gora, % 90. Horrez gain, 6 urtetik beherako haurrek doan dute garraioa, 25 urtez beherakoek eta 65etik gorakoek deskontu bereziak dituzte, familia ugariak eta desgaitasuna dutenak ere bai; eta, azkenik, tarifa sozial bat ere badago.

Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Ekarpenak	Foru- eskumena	Aurrekontuan aurreikusita	Zenbatekoa	Erantzuna
<i>dira Amezketan herritarrak galtzen ari garela, eta zaharrentzako egoitza ez badugu, eta garraioa ere eskasa bada... (Amezketak)</i>				
<i>Mugi txartelaren kopuruak ere jakin beharko genituzke. Urteak dira Amezketan herritarrak galtzen ari garela, eta zaharrentzako egoitza ez badugu, eta garraioa ere eskasa bada...</i>	Bai			MUGI sistemak hileko deskontu handi bat dauka lehen bidaiaik hasita; deskontu hori handitzen doa, hilabeteen zehar MUGI txartela erabiltzen den neurrian. Deskontua da: 1-20 bidaia artean, % 46; 21-50 bidaia artean, % 57; eta 51 bidaiaik gora, % 90. Horrez gain, 6 urtetik beherako haurrek doan dute garraioa, 25 urtez beherakoek eta 65 gorakoek deskontu bereziak dituzte, familia ugariak eta desgaitasuna dutenek ere bai; eta, azkenik, tarifa sozial bat ere badago.
Berastegiko Topaketa: Gaztelu, Belauntza, Leaburu, Elduain, Berrobi, Berastegi				
<i>Herriko eragile elkarte batek Gipuzkoako ikuspegi bat eskatzeko, ez da erraza. Elkarte guztiekin urtero bi alditan elkartzen gara eta gero harreman zuzena da. Astelehenean landa eremuan eta berdintasuneko gaiak aztertzeke, eta zer behar genuen ikusteko. Ez dakit nola enkajatu baina oinarritzko zerbitzuak behar ditugu, herri txikiak ez hustutzeke. garraio greba min handia egiten digu herri txikiei. Hortan, Foru Aldundiak laguntzea ez legoke gaizki. Edadeko jendea da gehien erabiltzen duena.</i>	Bai	Ez		Gipuzkoako Foru Aldundiak ezin du sartu enpresaren eta langileen arteko harreman laboraletan. Kontratu horretan jasotzen da enpresak bete egin behar dituela lan hitzarmenak finkatzen dituen baldintzak. Gainera, % 30eko gutxieneko zerbitzuak ari gara ziurtatzen, Eusko Jaurilaritzak erabakitakoren arabera.
<i>Linea 2, kontzesio berria egin zenean, %50 igo zen prezioa. Linea eskolarrari ez dio mintzen, baina extraeskolarrak, eta jende nagusientzako OSO MAKALA. Goizez 3 kendu dituzte, eta arratsalde 4... beraz 3 zerbitzu besterik ez dira gelditzen.</i>				
<i>Larunbata gauetan eta ihauteritan asko ibiltzen zen eta jende asko erabiltzen zuen gainera.</i>				
<i>Hutsik ez dijoa... ez dugu gehiago jartzea eskatzen... ZIENTOKA kotxe ibiltzen dira orain</i>				

Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Ekarpenak	Foru-eskumena	Aurrekontuan aurreikusita	Zenbatekoa	Erantzuna
<i>errepideetan eta nekagarria, arriskutsua da, eta ekologi mailan, oso tamalgarria.</i> <i>Enpresa eta foru aldundiak batera eseri beharko lukete lehen bait lehen konpontzeko</i>				
<i>Lizartatik tolosara bidegorria nahi dugu, baina Diputazioak esaten digu, jadanik markatuak dituela proiektuak eta ez dela hori barnean sartzen. Sartzen gaituzte zaku berdinean, eta laguntzak eskatzeko orduan, kasu bakoitzean sakonki aztertu beharko zen.</i>	Ez	Ez		Proposamenen ongi adierazten den bezala, bidegorri hori ez dago jasoa Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialean. Bidegorri berriak egiten hasi aurretik, aurreikusita daudenak amaitu behar lirateke.
Elgetako Topaketa: Leintz – Gatzaga, Elgeta				
<i>Bidegorri baten eskaera egin, eta bileran bat eskatu genuen gai hontaz hitz egiteko, eta orain arte, ez da ezer egin. beste lekutan erraz egiten dira. 300 mila euro zen gure presupuestua eta gastua guztira, kilometro bat besterik ez da, argiztatuta eta guzti.</i>	Ez			Bizikleta bide hau ez dago Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialean jasota.
<i>Garraio publikoa: Agerraldi bat izan genuen, eta bertan, Elorrioko loturan, 2 zerbitzu besterik ez daudela. Eibarko linea eta Oñatiko beste linea bat. Bestalde, daukagun eskaripeko zerbitzua 8tan bukatzen da. Eta igotzen den jende bakoitzak telefonoz deitu behar du izena emateko: bestela ez du inork hartzen. Eta askotan ez du telefonorik hartzen.</i>	Bai	Ez		Lurraldebusen lineak benetako mugikortasunera egokitzen dira. Lurraldebuseko lineen arteko autobus aldaketak doanekoak dira. Operatzaileek kudeatzen dituzten eskaripeko zerbitzuek erantzun egokia ematen diete erabiltzaileen beharrei. Gainera, lantoki, ikastetxe, ospitale eta abarretako sarrera-irteerako puntako orduetan zerbitzuak indartu egiten dira, herritarren interes orokorrei zerbitzurik onena emateko.
Errezilko Topaketa: Beizama, Albiztur, Bidania-Goiatz, Errezil, Aizarnazabal				

Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Ekarpenak	Foru- eskumena	Aurrekontuan aurreikusita	Zenbatekoa	Erantzuna
Lurralde bus justo behian gelditzen da, sarrera oso txarra duelako. Oraingoan, 4 zerbitzu besterik ez ditugu Zumaira. Baina ...	Ez	Ez		Geltokiak finkatzeko eskumena udalena da, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean.
Garraio erabilera on batera iritsi ginen, baina orain greba dela eta desastre hutsa da.	Bai	Ez		Gipuzkoako Foru Aldundiak ezin du sartu enpresaren eta langileen arteko harreman laboraletan. Kontratu horretan jasotzen da enpresak bete egin behar dituela lan hitzarmenak finkatzen dituen baldintzak. Gainera, % 30eko gutxieneko zerbitzuak ari gara ziurtatzen, Eusko Jaurlaritzak erabakitakoren arabera.
Bestalde, gaueko zerbitzuak faltan botatzen ditugu, gazteentzako, eta denontzako, kotxeak ez hartzeko, eta arriskuak murrizteko. Batez ere aste burutako eta festa handietan. Eskaera egin genuen egutegiarekin, baina biztanle kopuruagatik ez ziguten proposamena onartu.	Bai	Bai		Lurraldebusen lineak benetako mugikortasunera egokitzen dira. Lurraldebusen lineen arteko autobus aldaketak doanekoak dira. Operatzaileek kudeatzen dituzten eskaripeko zerbitzuek erantzun egokia ematen diete erabiltzaileen beharrei. Gainera, lantoki, ikastetxe, ospitale eta abarretako sarrera-irteerako puntako orduetan zerbitzuak indartu egiten dira, herritarren interes orokorrei zerbitzurik onena emateko. Horrez gain, herriko jaietan autobus zerbitzu bereziak ezarri ohi dira, udalek hala eskatuta.
Gu garraio aldetik ez gaude hain gaizki. Errepidera ateratzen gara eta paradak baditugu. Baina ohitu gara ordutegietara. Baina ez daude markesinak markatuta.	Ez	Bai		Berinapeak hiri altzariak direnez, udalak erabaki behar du halakorik ezartzea.

Mugikortasuna eta Lurralde
Antolaketa
Ekarpenak

Foru-
eskumena

Aurrekontuan
aurreikusita

Zenbatekoa

Erantzuna

Gabiriako Topaketa: Mutiloa, Zerain, Gabiria, Ezkio, Itxaso

<i>Ormaiztegitik luzapena eginez, bidegorri bat egitea ondo legoke, baina erdian, zubi bat badago, eta erreka ondotik ere pasatzen da. Zailtasun handiak sortzen dira bidea egiteko, eta errepidea bazterretik egitea izango litzateke irteerarik errazena. Berez teknikoki, nahiz eta garatu gabe egon, ez dauka zailtasun handirik.</i>	Ez	Ez		Gipuzkoako Foru Aldundia lanean ari da 2013an onartutako Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala garatzeko, Gipuzkoako oinezko nahiz bizikletazko erabilera sare osoaren plangintzaren barruan. Bide zati hori araudian jasota ez dagoenez, ez dago aurreikusia noiz egingo ote den.
<i>Itsason ere garraioa oso eskasa da... 9etan dago lehenengo autobusa, eta ordubata t'erdik arte ez daukagu beste bat. Eskaripean ere ezin dugu egin. MUGI badugu... baina ez digu ezertarako balio. Eta Utsik ikusten dira, jendea, egiten dion zerbitzuak, ez duelako ezertarako balio.</i>	Bai	Bai		Lurraldebusen lineak benetako mugikortasunera egokitzen dira. Lurraldebuseko lineen arteko autobus aldaketak doanekoak dira. Operatzaileek kudeatzen dituzten eskaripeko zerbitzuek erantzun egokia ematen diete erabiltzaileen beharrei. Gainera, lantoki, ikastetxe, ospitale eta abarretako sarrera-irteerako puntako orduetan zerbitzuak indartu egiten dira, herritarren interes orokorre zerbitzurik onena emateko.
<i>Eskolara jeisteko ere ez daukagu autobusik eta horretaz gainera, daukagun zerbitzu bakarra, sekulako buelta ematen du iritsi orduko.</i>	Ez	Ez		Lurraldebus garraio publikoko zerbitzuak interes orokorra zaindu behar du lehentasunez. Gabiriako autobusa goizeko 07:10etan da (DG06), ordutegiak benetako mugikortasunera egokitzen baitira. Bestalde, ez da Lurraldebusen eskumena eskolako garraio zerbitzua ematea. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak erantzun behar dio eskaera honi.

Lizartzako topaketa: Altzo, Ikaztegieta, Oresa, Lizartza



Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Ekarpenak	Foru- eskumena	Aurrekontuan aurreikusita	Zenbatekoa	Erantzuna
Bidegorria, eta herri txikien arteko bideak ez dira kontuan hartzen eta beharrezkoak dira.	Bai	Bai	1.000.000 €	Bidegorrien mantentze lanak egiteko aurrekontua loturik dago errepideen zaintzarako aurrekontuari, Bide Azpiegituretako Departamentuaren barruan.
Herri txikitan filosofia amankomunatu bat daukagu. Mugikortasuna eta garraio publikoa edo bidegorriak garrantzi handikoak dira konexioak egon daitezzen.	Bai	Bai	1.000.000 €	Bidegorrien mantentze lanak egiteko aurrekontua loturik dago errepideen zaintzarako aurrekontuari, Bide Azpiegituretako Departamentuaren barruan.
Altzo Alegi Altzo autobusa 30 minutu zai egon behar dute... horregatik azkenean, kotxez josten dira gazteak nahiz eta eskaripekoa izan... desoreka bat dago eta transbodoak egin behar dituzte beste edonora joateko eta hor daude arazoak. Linea bat nahi genuen umeak eskolara eramateko, baina normatibak diferenteak dira eta ezin dugu moldatu. Horretarako, guk kostea ordaintzen dugu taxisten bitartez. Hortaz gainera ezin ditugu ordutegiak aldatu ere.	Bai		36.515.344 €	Ahalegintzen gara Lurraldebusen garraio zerbitzua, eraginkorra izateaz gain, benetako mugikortasunera egokitzea, eta herritar guztien interes orokorren zerbitzura egotea.
Olaberriako Topaketa: Altzaga, Arama, Itsasondo, Olaberria				

Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Ekarpenak	Foru- eskumena	Aurrekontuan aurreikusita	Zenbatekoa	Erantzuna
<i>Olaberrian eskaripeko garraioa jartzeko asmoa daukagu eta ez digute kasurik egiten, nahiz eta 7mila bider deitu. Bakarrik zerbitzu bat daukagu eskolarako, besterik ez. Azkenean, guk ordaindu behar ditugu zerbitzuak nahi izanez gero.</i>	Ez	Ez		Ikastetxeetako garraio zerbitzua Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren eskumenekoa da. Olaberritik abiatuta, bi linea daude udalerriri zerbitzua emateko; GO01 Zaldibia-Zegama, eta GO24E Olaberria-Lazkao; azken hori eskaerapeko zerbitzu bat da, hiru zerbitzu dituen Olaberritik abiatuta, eta 5 Lazkaotik, eskera eginda betiere. Autobus aldaketan bidez, linea hauek lotura egiten dute gainerako udalerriekin. Berrantolamendua egin zenean, 2016an hasi ziren zerbitzuan bi linea berriak, eta Goierriko eskualdean bidaiak % 13 hazi ziren.
<i>Altzagan aste buruan busa kendu digute, eta transportearen arduradunari deitu eta ondoren... (beste 7 mila bider) komentatu genion zein zen gure arazoa, ordutegia adosteko (eskaripekoak danak) ta ulertu genuen astelehenetik Igandera izango zela... baina ez da horrela izan, eta asteburuetan kendu digute. Eta hitzordua eman digute, goizez bilera bat edukitzeko, eta horretarako, gure lan partikularretik atera behar gara Donostiara Joateko.</i>	Bai	Bai		Lurraldebusen lineak benetako mugikortasunera egokitzen dira. Lurraldebuseko lineen arteko autobus aldaketak doanekoak dira. Operatzaileek kudeatzen dituzten eskaripeko zerbitzuek erantzun egokia ematen diete erabiltzaileen beharrei. Gainera, lantoki, ikastetxe, ospitale eta abarretako sarrera-irteerako puntako orduetan zerbitzuak indartu egiten dira, herritarren interes orokorre zerbitzurik onena emateko.
<i>Eskolara jeisteko ere ez daukagu autobusik eta horretaz gainera, daukagun zerbitzu bakarra, sekulako buelta ematen du iritsi orduko.</i>	Ez	Ez		Ikastetxeen garraio zerbitzua Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren eskumenekoa da. Olaberritik abiatuta, bi linea daude udalerriri zerbitzua emateko; GO01 Zaldibia-Zegama, eta GO24E Olaberria-Lazkao; azken hori eskaerapeko zerbitzu bat da, hiru zerbitzu dituen Olaberritik abiatuta, eta 5 Lazkaotik, eskera eginda betiere. Autobus aldaketan bidez, linea hauek lotura egiten dute gainerako udalerriekin. Berrantolamendua egin zenean, 2016an hasi ziren zerbitzuan bi linea berriak, eta Goierriko eskualdean bidaiak % 13 hazi ziren.

6. OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

 **Diputatua:** Javier Larrañaga



 aalkain@gipuzkoa.eus

» **2019ko Aurrekontua:** 48.548.814 € (5,96%)

» **Departamentuaren helburuak:**

- Aberastasuna banatu eta ekonomia sustatzeko tresna izatea.
- Foru Aldundiaren baliabideak zuzen kudeatzea.
- Diru-sarreraren jasagarritasuna bermatzea.
- Zerga-iruzurraren aurkako dinamikak indartzea.
- Lurraldearen lehiakortasunaren hobekuntzan eragile aktiboa izatea eta, bere alorretik, ekonomia suspertzeko estrategiari ekarpena egitea.

Ogasun eta Finantzak Ekarpenak	Foru- eskumena	Aurrekontuan aurreikusita	Zenbatekoa	Erantzuna
Adunako Topaketa: Larraul, Hernialde, Alkiza, Aduna				
Biztanle kopuru aldetik begiratuta, oso desproporzionatuta daude aurrekontuak	Bai	Bai		Udalak Finantzatzeko Foru Funtsaren banaketa irizpideetan jasota dago diskriminazio positibo bat egitea 1.100 biztanlez beherako udalerrien alde. Funtsaren % 1,2 (hau da, 2,2 milioi) gordetzen da udalerrri horien artean soilik banatzeko.
Krisia baino lehenago diru laguntza handiak bazeuden... ulertzen dut krisia dela eta hauek jeistea. Baina orain honez gero krisitik atera garela, laguntzak arlo guztietan askoz ere txikiagoak dira. Ez dira igo proportzionalki. Zergaitik?	Bai	Bai		Aurrekontuen jatorrian diren lehentasunak aldatu egiten dira urteak joan ahala (laguntza batzuk gutxitu egiten dira, beste batzuk handitu; batzuk desagertu egiten dira, beste batzuk sortu), errealitate berrietarako egokitzeko. Krisia gairatu dugu, baina gure gizartea aldatu egin da. 2008an, aurrekontuaren % 37 erabiltzen zen gizarte politikan; 2018an, berriz, % 48.
Elgetako Topaketa: Leintz – Gatzaga, Elgeta				
Josebaren azalpenaren sarreratik hasita, lehen, psoek eta bilduk onartutako presupuestoak ondo zeudela esango nuke, eta gaur egun, oso bajuak iruditzen zaizkit. Jestioa agian orain ez da ona.	Bai	Bai		Foru Aldundiak gauzatzen dituen politika publiko guztien ikuspegia da aberastasuna birbanatzea. Alde batetik, gastuaren % 48 gizarte politikan erabiltzen da, hau da, diru sarrera apalagoak dituen biztanleriaren alde. Bestetik, diru sarreraren aldetik begiratuta, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta Ondarearen gaineko zerga oso progresiboak dira: gehien duenak, gehien ordaintzen du. PFEZ zergan –bera da gure zerga garrantzitsuenak– errenta apaleko zergadunen % 50ek egiten du zerga bilketaren % 10, eta errenta handiko zergadunen % 25ek, berriz, zerga bilketaren % 70.
Ondo legoke, jakitea, ze diru kopuru zehatza banatzen den kasu bakoitzeko hurrengo urterako	Bai	Bai		GFAk bitarteko askotatik argitaratzen du informazio guztia aurrekontuaz, kontratazioaz eta diru laguntzez.

7. BIDE-AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUA

 **Diputatua:** Aintzane Oiarbide



jazpiroz@gipuzkoa.eus

» **2019ko Aurrekontua:** 82.335.009 € (10,11%)

» **Jarduera-ildoak eta zereginak**

- Errepide-sarea planifikatzea eta Lurraldeko bide-sarea eraiki, kontserbatu eta ustiatzea.

» **Departamentuaren helburuak:**

- ➔ Gipuzkoako biribilgunea amaitzea.
- ➔ Gure lurraldea (N-1, Etzegarate) zeharkatzen duen garraio astunari bidesaria eskatzeko sistema berria diseinatzea.
- ➔ Energia-eraginkortasuna errepideen mantentze-zereginetan.
- ➔ Errepide-sarea eta autobideko sarbideak hobetzea,
- ➔ BIDEGI sozietate publikoaren eredua indartu eta sustatzea.
- ➔ Erabiltzaileei ematen zaien zerbitzua hobetzea, baita aurrerapen teknologikoen aldeko apustua egitea ere.

Bide Azpiegiturak Ekarpenak	Foru-eskumena	Aurrekontuan aurreikusita	Zenbatekoa	Erantzuna
Adunako Topaketa: Larraul, Hernialde, Alkiza, Aduna				
Herri txikietako kaskoetan mugikortasuna bermatua dago... kontua da kaskotik kanpora joateko karreterak erabiltzen ditugunean... kanposantura joateko edo... beste auzo batera joateko edo, segurtasun arazo handiak daudela.	Ez			Ez da Foru Eskumenekoa
Irizarreaino dagoen bidea irekita dago. Baina hortik aurrera joaten bazara industriguneara (partzela gehiago egin behar dira), hor Aldundiarekin trato bat zegoen: Udalak konpromezua hartzen zuen Orain irizarretik enpresataraino egitea zati hori, eta amaierako trama (rotondatik Billabonako zubiraino km3-km4) Diputazioak egin behar zuela ... Gure eskaera da obra egitea edo 2019ko kontuetan sartzea behingoz. Karretera hestua da, eta zuloz beteta dago.	Ez			Gaur egun errepide hori Adunako udalarena da. Zentzuzko proposamena da eta aldundiko errepide departamendua aukera honen jakitun da. Lehentasunen arabera lantzeko proposamena da.
Elgetako Topaketa: Leintz – Gatzaga, Elgeta				
Ez daukagu VIA T aren tarifa planaren berririk. Baina Bilbora joaten bagara, Eibarrera atzeratu behar dugu, errepidea, Gipuzkoatik hartu eta horrela tarifa plana aplikatzen delako, bestela, autopista Bizkaitik hartuz gero, ez digu tarifa plana hartzen.	Bai	Bai		Via-T dagoeneko erabilgarri da Bizkaian eta Araban. Abiatu sistema aipatzen bada, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera 45 euroko tarifa bat ezarrita dago, Abiatu sistemaren deskontuen barruan, gipuzkoar erabiltzaileentzat, Gipuzkoatik abiatuta edo bertara joateko, Bizkaira edo Arabara joaten badira AP-8 edo AP-1 erabiltza.
Kanpazarko bidea: Bidea oso estua da eta kamioi asko daude. Bide gurutzea oso gaizki dago eta ez da ezer ikusten... baina ia Bizkaia denez, politikoki gatazkak sortzen dira. (Aldundiko norbait aztertzen egon zen... baina konpetentzi arazoak direla esan zigun). Eta bestalde, bukatzeko, bide hori konpontzea interesgarria litzake, irteerak eta sarrerak errazteko.	Bai	Bai/Ez		Egia da, Bizkaian denez ezin dugu zuzenean obrarik egin. Konpontzeari buruz, errepideak hobetzea eta egoera onean edukitzea departamentuaren eguneroko lana da.

Bide Azpiegiturak Ekarpenak	Foru-eskumena	Aurrekontuan aurreikusita	Zenbatekoa	Erantzuna
Astebete da istripu bat egon dela, estu gune batean; Eibarko bidean. Bertan zegoen arazoaren konponketa eskatu genuen: zuhaitzen adarrak moztea, bidea zabaltzeko.	Bai	Ez		Ez dugu arazo hori ezagutzen ezta kokatzen ere. Udalaren bitartez eskaera landu eta guri helaraztea eskatzen dizugu.
Bergarako bidetik etorrira herriguneruntz, ondo ikusten da, baina Antzokiko aldean, ez da ezer ikusten eta oso gaizki dago.	Bai	Ez		Ez dugu arazo hori ezagutzen ezta kokatzen ere. Udalaren bitartez eskaera landu eta guri helaraztea eskatzen dizugu.
Arkutik frontoieko bidean, kunetatxo hortan, istripu bat izan zen, eta puskatu zen, Diputazioak zementoz itxi zuen, baina berriz apurtu da. Partxeatu besterik ez zen egin.	Bai	Bai		Kuneta bat konpondu bada ere, argi ez daukagunez berdina ari garen, udalaren bitartez eskaera bidaltzea eskertuko genizuke.
Errezilko Topaketa: Beizama, Albiztur, Bidania-Goiatz, Errezil, Aizarnazabal				
Gu asfaltoaren asuntuan daukagu arazo latza. Nahiz eta Lehenengo sektorean ez egon, gu ere laguntzak behar ditugu. Herri bakoitzak arazo desberdinak ditu eta entzutea besterik ez da. Diru laguntza agian txikiagoak baina banakatuagoak... 2016ko laguntzak agian.	Ez			Bide azpiegiterako departamentuak ez du diru-laguntzarik ematen asfaltatzeko.
Industria ere badaukagu hemen eta sarbide oso-oso txarra dauka kurba batean... adibidez. Beste batzuen artean .	Ez			Industrietako eta beste lursail pribatuetako sarrerak jabeek mantendu behar dituzte egoera onean. DOMUSA-ren sarrera -irteerari dagokionean lanean ari gera Errezilgo Udalarekin.
Gabiriako Topaketa: Mutiloa, Zerain, Gabiria, Ezkio, Itxaso				
Azpiegiturentzako, errepideentzako aurrekontu handiagoa beharko genukeen.				
Errepideetako seinaleak hasi behar dira aldatzen.	Bai	Bai		Errepideak hobetzea eta egoera onean edukitzea departamentuaren eguneroko lana da. Jarduerak aurrekontuen bitartekoen arabera gauzatzen dira. Azken urtean errepideko zorua berritzeko lanak



Bide Azpiegiturak Ekarpenak	Foru-eskumena	Aurrekontuan aurreikusita	Zenbatekoa	Erantzuna
				egin dira.
Olaberriako Topaketa: Altzaga, Arama, Itsasondo, Olaberria				
<i>Errepide garbiketan adibidez, urtean behin adostuta garbitzeko dago, baina ez dira seinaleak ikusten, errepideak jaten dituzte belar zaharrak.... Ea. Ezin dezakegu gure lana utzi herriko asuntuetaz arduratzeko.</i>	Bai	Bai		Errepideak hobetzea eta egoera onean edukitzea departamentuaren eguneroko lana da. Jarduerak aurrekontuen bitartekoen arabera gauzatzen dira. Azken urtean errepideko zorua berritzeko lanak egin dira.
<i>Aintzanekin hitz egin genuen eta harek zin egin zigun bi kurba garbituko zituela 2017an barne... oraindik egin gabe dago!!</i>	-			Ez dakigu zein kurbataz ari garen. Altzagako errepidean 2 kurba hobetzeko konpromisoari buruz bada, 2018ko abuztuan lanak martxan daude.

8. GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

 **Diputatua:** Maite Peña



mloinaz@gipuzkoa.eu

➔ **2019ko Aurrekontua:** **389.851.323 € (Foru Aurrekontu osoaren %47,89)**

➔ **Helburu estrategikoak:**

- ➔ Lurraldeko gizarte-zerbitzuen kalitatea, antolamendua eta estaldura **hobetzea**, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen aurreikuspenen arabera.
- ➔ Foru-eskumenekoak diren zerbitzuak **egokitzea** oraingo zein etorkizuneko eskaeraren aldaketetara, ondorengo arloetan zerbitzuen kalitatea hobetuz: menpekotasunerako eta funtzio-aniztasunerako arreta, haurren eta nerabeen babesa, gizarteratze-arloa, indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako arreta eta gizarte-larrialdiak.
- ➔ Erakunde guztiekin, udalekin batez ere, **koordinazioan eta lankidetzan** aritzea gizarte-zerbitzuei buruzko Legea garatzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Plan Estrategikoa burutzeko, baita Gipuzkoako Gizarte eta Osasun Plan Operatiboa ezartzeko ere.

Gizarte Politikak Ekarpenak	Foru- eskumena	Aurrekontuan aurreikusita	Zenbatekoa	Erantzuna
Adunako Topaketa: Larraul, Hernialde, Alkiza, Aduna				
Adin Berri proiektua nola lagunduko gaitu gure zaharrek?	Bai	Bai		Zahartzaroaren esparruko entitate, enpresa eta eragile guztiei irekita dagoen estrategia da AdinBerri, erakunde hauekin guztiekin elkarlanean arituko gara arlo honetako ekosistema osatzeko
Berastegiko Topaketa: Gaztelu, Belauntza, Leaburu, Elduain, Berrobi, Berastegi				
Zahar asko daude Berastegin, baina pisutan zaintzen ditugu, ze eguneko zentruetara ez ziren etortzen eta itxi egin genuen.	Bai	Bai	108.793 €	Plaza berrietarako igoera da. Legegintzaldi honetan 108 egoitza-plaza sortuko dira.
Errezilko Topaketa: Beizama, Albiztur, Bidania-Goiatz, Errezil, Aizarnazabal				
Guk ez ditugu zerbitzuak, eta zerbait beharrez gero, jetsi behar gara. Eskualdeko zerbitzuak gure beharrak ez dute kontuan hartzen, ze beraien beharrak ondo kubrituta dituztelako. gizarte zerbitzuak garbi ikusten dute gure beharrak zein diren. baina politikoez ez gara ados jartzen, eta ezin dugu konpetitu.	Ez	Bai	9.620.533 €	Udalaren eskumeneko zerbitzu bat da; Etxeko Laguntza Zerbitzuaren finantzaketaren parte da Foru Aldundia.
Gabiriako Topaketa: Mutiloa, Zerain, Gabiria, Ezkio, Itxaso				
Oso zaila da gure zaharrak beraien ingurutik ateratzea. Eta uste dut, nagusientzako daukazuen proiektuak, hirietan bizi diren nagusientzat diseinatu daudela ematen du. Egokiena, gure nagusiak etxean atenditzea da.	Ez	Bai	9.620.533 €	Udalaren eskumeneko zerbitzu bat da; Etxeko Laguntza Zerbitzuaren finantzaketaren parte da Foru Aldundia.
Ondo legoke, elkarrekin (herri txikiekin batera) Adinberriko proiektuan parte hartzea. Errealitatea gertutik ikusteko.	Bai	Ez		Zahartzaroaren esparruko entitate, enpresa eta eragile guztiei irekita dagoen estrategia da AdinBerri, erakunde hauekin guztiekin elkarlanean arituko gara arlo honetako ekosistema osatzeko



Gizarte Politikak
Ekarpenak

Foru-
eskumena

Aurrekontuan
aurreikusita

Zenbatekoa

Erantzuna

Olaberriako Topaketa: Altzaga, Arama, Itsasondo, Olaberria

Ordizian nerabeek proiektuak egiten dituzte gure zaharrak etxez etxeko laguntzak izateko, eta horrela beraiei ere konzientzia sortzen zaie. Hortaz aparte, Kanpotik etorritako jendea inplikatu egiten da ere gure zaharrak etxeetan zaintzeko, eta horrela lana edukitzeko, eta oso ondo ibiltzen gara. kooperazioa, Gizarte laguntzak, Proiektuak garatuz... konzientziazioa eta sozializazioa sortzen da. Gerturatzea

Ez

Bai

9.620.533 €

Udalaren eskumeneko zerbitzu bat da; Etxeko Laguntza Zerbitzuaren finantzaketaren parte da Foru Aldundia.

9. INGURUMENeko ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

 **Diputatua:** José Ignacio Asensio



 rlorenzo@gipuzkoa.eus

» **2019ko Aurrekontua:** 24.975.783 € (+3,07%)

» **Departamentuaren helburuak:**

- ➔ Hiri-hondakinen kudeaketari erantzun integrala ematea, baliabideen erabilera eraginkor eta ekonomia zirkularrari buruz, Europako Parlamentuaren 2015eko uztailaren 9ko erabakia oinarri hartuta.
- ➔ Europako zuzentarauetan ezarritako hondakin-hierarkia bermatzea: aurea hartzea, berrerabiltzea, birziklatzea eta energia-balioztatzea.
- ➔ Birziklapenaren Gipuzkoako Klusterra eratzea, bertan, Administrazioarekin batera, industriak, unibertsitateak eta teknologia-zentroek parte har dezaten eta Ingurumena etorkizuneko politika ekonomikoen ardatz izan dadin.

Ingurumena eta Obra Hidraulikoak Ekarpenak	Foru- eskumena	Aurrekontuan aurreikusita	Zenbatekoa	Erantzuna
Adunako Topaketa: Larraul, Hernialde, Alkiza, Aduna				
<i>Ingurumena faltan botatzen dut Diputaziak pentsatu dituen proiektu horietan. Laborategi bat naturaren aspektuan aztertzeko. Natura eta Kultura - FAUS proiektua aurkeztu genuen, 9 herri bertan sartuta daudela. Nahi genuke Diputazioak jabetzea eta horren inguru lan gehiago egitea, herriko garapenarekin lotzeko. Natura gizakia eta kultura (Txakolindegia, artistak, turismoa kostatik ateratzeko, agroturismoak e.a.)</i>	Bai	Bai	110.000 €	Zuzendaritzaren funtsezko politika bat da. Bereziki Gipuzkoa Naturaldiaren bidez eta 120 programan dauden jasagarritasunerako hezkuntzako beste hainbat ekitaldiren bidez erantzuten zaio behar horri.
Elgetako Topaketa: Leintz – Gatzaga, Elgeta				
<i>Ura agentzikin sinatuta dauzkagu zenbait obra egiteko, baina 2021 urtetik aurrera egiteko asmoa dutela eta bitartean ez dela ezer egingo esan digute. Baina lotsagarria da ur zikin guztiak, errekatxo batera botatzea. Errekaren egoera tamalgarria da. Gu uraren asuntua kontsortzio bitartez kudeatzen dugu baina beste asuntuak, Jaurilaritzak udaletxei baliabideak jarri beharko lizkioke. MUTRIKU, ANDOAIN... eta beste hainbat herri berdin daude. 7 herri konkretuki.</i>	Ez			Udal eskumen bat da hau. Gipuzkoako Ur Kontsortzioa-Gipuzkoako Urak SA arduratzen da hondakin uren isurketen irtenbide teknikoak bilatu eta aplikatzeaz. GFAK, Kontsortzioaren kide den neurrian, irtenbide teknikoetan bezala, aplikatu beharreko irtenbidearen finantzaketan ere parte hartzen du.
Errezilko Topaketa: Beizama, Albiztur, Bidania-Goiatz, Errezil, Aizarnazabal				
<i>Gu laguntzak jaso ditugu orain arte, baina azpiegiturretan behar ditugu aurten laguntza gehiago... tuberiak ur garbiak, zikinak eta elektrizitatea. Aizarnazabalek, ur zikinak itxasora botatzen ditu. Eta gu herri txiki gara horrelako tramiteak egiteko edo plangintza egitea oso zaila gertatzen zaigu.</i>	Ez			Udal eskumen bat da hau. Gipuzkoako Ur Kontsortzioa-Gipuzkoako Urak SA arduratzen da hondakin uren isurketen irtenbide teknikoak bilatu eta aplikatzeaz. GFAK, Kontsortzioaren kide den neurrian, irtenbide teknikoetan bezala, aplikatu beharreko irtenbidearen finantzaketan ere parte hartzen du.
<i>Urik ez daukagu. Ur zikinak.... Diputaziotik ari dira eskatzen baina, gu konsortzion gaude eta ez dakigu nola egin. ura depositotatik etortzen zaigu eta oso garestia da.</i>	Ez			Udal eskumen bat da hau. Gipuzkoako Ur Kontsortzioa-Gipuzkoako Urak SA arduratzen da hondakin uren isurketen irtenbide teknikoak bilatu eta aplikatzeaz. GFAK, Kontsortzioaren kide den neurrian, irtenbide teknikoetan bezala, aplikatu beharreko irtenbidearen finantzaketan ere

Ingurumena eta Obra Hidraulikoak Ekarpenak	Foru- eskumena	Aurrekontuan aurreikusita	Zenbatekoa	Erantzuna
				parte hartzen du.
Depuradora bat izateko... nondik aterako ditugu diruak?	Ez			Udal eskumen bat da hau. Gipuzkoako Ur Kontsortzioa-Gipuzkoako Urak SA arduratzen da hondakin uren isurketen irtenbide teknikoak bilatu eta aplikatzeaz. GFAK, Kontsortzioaren kide den neurrian, irtenbide teknikoetan bezala, aplikatu beharreko irtenbidearen finantzaketan ere parte hartzen du.
Gabiriako Topaketa: Mutiloa, Zerain, Gabiria, Ezkio, Itxaso				
Fosa septikoak eta kanalak edo tuberiak egiteko premia ere badugu. Iñigo Elosegik esan zigun 2019rako egongo zirela, baina Aldunditik beste data eman ziguten; 2022rako zela. 2017ko deialdian ez gara sartu LIER laguntza eskaeran. Ez dakigu teknikoki gauzak ondo ez ditugulako egin... edo... baina hurrengo urterako aurkeztuko gara.	Ez			Udal eskumen bat da hau. Gipuzkoako Ur Kontsortzioa-Gipuzkoako Urak SA arduratzen da hondakin uren isurketen irtenbide teknikoak bilatu eta aplikatzeaz. GFAK, Kontsortzioaren kide den neurrian, irtenbide teknikoetan bezala, aplikatu beharreko irtenbidearen finantzaketan ere parte hartzen du.

10. BESTE BATUZK / FORU ALDUNDIAREN ESKUDUNTZARIK GABE

Foru Aldundiaren eskuduntzarik gabe Ekarpenak	Foru- eskumena	Aurrekontuan aurreikusita	Zenbatekoa	Erantzuna
<i>Herri txikientzat egiten den deialdia, badirudi herri txikitako kaskoentzat besterik ez dela, eta herriz kanpo baserrietan bizi direnak, kanpo gelditzen dira</i>	Ez	Ez		Ez da Foru Aldundiaren eskumenekoa
<i>Adunan espaloia egin zenean, Diputazioak lagundu zigun nahiz eta bere esku ez egon. Azkenean Diputazioak lizitatu zuen. 200 eta gehiago mila euro kosta zitzaigun, baina oso inbertsio ona izan zen... beldurra kendu genuen, eta limitazioak ere apurtu genituen. Artzenik ez daude eta obra honekin asko irabazi da</i>	Ez	Ez		Mila esker zure balorazioagaitik.
<i>Gizarte politikan oso gastu handia datorkigu etxez etxeko laguntza zerbitzuan? Ze... Aldunditik ere murriztu dira laguntzak. Dena den herri arteko mankomunitate bidez planteatzen ari gara: garraio sistema furgoneta batekin jasotzeko eta bueltatzeko.</i>	Ez	Ez		Ez da Foru Aldundiaren eskumenekoa
<i>Espaloia Adunan egin zenean, esan genien Euskaltelekoei komunikazio hodiak eta sartzeko... baina ez ziguten kasurik egin. Orain dela gutxi, Movistarrekoei zuntz optikoa sartu dute beraien kobre garraiotik. Eta Hau gertatu denean, Euskaltelekoek etorri dira baimenak eskatzen gure kanalizazioak erabiltzeko, ze orain laguntzak dituzte obrak egiteko. Beraz, orain zerbitzua badaukagu eta ez ditugu behar Euskalteleko lineak, Dena den, airetik edo postetan ahal dute erabili... Baina horrela egin behar badute, Movistarrekoei dirua ordaindu behar zaie eta urteak pasa daitezke... baina...diru laguntzak iraungi egiten dira, eta horregatik hasi dira beraien kabuz obrak egiten. Baina positiboa da leku guztietara ari garela Internetera eramaten.</i>	Ez	Ez		Aldundiak jada esleitu du Fibra optikoa eramateko lehiaketa. Laister 2.500 biztanletik beherako ainbat udalherrikeri zerbitzu berri onen onuradun izateko aukera izango dute, batik bat nekazal eremuetan.
<i>Ur sareak (Amezketak)</i>	Ez	Ez		Bidegorriaren proiektuaren eguneraketa enkargatuko da saneamendu-obrekin batera
<i>Herrian arazo handia dago aparkatzeko. Kanpoko jende asko etortzen da eta plaza kotxez beteta dago. Umeek ez dute jolasteko lekurik.</i>	Ez	Ez		Gai hau udaletxearen eskumeneko gaia da.
<i>Etxebizitza berriak egiteko lekurik ere ez dago. Umez oparo izan ziren belaunaldiak izan genituen, baina herriaren nortasuna eta guztia aldatu daiteke. Jendea joaten bada, edo bestela buru gabe etxebizitzak egiten</i>	Ez	Ez		Gai hau udaletxearen edo Eusko Jaurlaritzari dagokio

Foru Aldundiaren eskuduntzarik gabe Ekarpenak	Foru- eskumena	Aurrekontuan aurreikusita	Zenbatekoa	Erantzuna
<i>badira bakarrik lo egiteko. Bloke handia egin zen, eta kanpoko jendea etorri zen. Ohiturak eta hizkuntza bermatuak ikusten dira... baina egia esan eskaerak ere ez daude. Baina oso harro gaude gure nortasunaZ. Baina arazoa da, lur gutxi daukagula eta ez ditugula kaiolak egin nahi kanpoko jendea ez etortzeko.</i>				
Elektrifikazioa, transformadoreak aldatu behar ditugu...	Ez	Ez		Ez da Foru Aldundiaren eskumenekoa
<i>Belauntza Udaletxetik lortu dugu ingeleseko klaseak ematea herriko umeeekin. Bestela Tolosara jaitsi behar zuten, eta orain herrian dugu... horrek, mugikortasun aldetik ere abantaila handia da. Lizartatik Tolosara bidegorria nahi dugu, baina Diputazioak esaten digu, jadanik markatuak dituela proiektuak eta ez dela hori barnean sartzen.</i>	Ez	Ez		Bidegorrien plana zehaztuta eta onartua dago. Plana plangintzaren eta baliabideen arabera gauzatzen ari gara.
<i>Badugu etxe bat berritzeko, baina xoxik ez (Iñakik galdetzen dio, Etxebidekoekin eskaintza bat botatzeko aukera izango balu, etxea muxu-truke emateko, eta bertan etxe sozialak eraikitze prest egongo zen edo ez).</i>	Ez	Ez		Aztertuko ditugu irteera posible batzuk, Lurralde orekako zuzendaritzaren eskutik.
<i>Soberan dakigu, igerilekurik ezin izango dugula izan herrian, baina Bergarako udaletxera eman genien gure dirua, kiroldegi bat egiteko, eta alboan gauden herri txikiekin batera zerbitzuak gozatzeko. Baina gu Elgetarrak bezala, % 30 gehiago ordaintzen dugu zerbitzuengatik. Beraz zerbitzuak oso garestiak dira guretzako. Hau horrela jarraituz gero, salaketa bat jarriko genuke. Beste herriak baino gehiago ordaintzea ez da justua...</i>	Ez	Ez		Ez da gure eskumeneko gaia, baina iruditzen zaigu hitzarmen horren iraupen epea gaindituta dagoela.
<i>Ekonomia suspertzeko proiektu bat badaukagu (diru laguntza potente batekin, eta Diputaziotik hartuta PASSIVHAUS proiektua nahi dugu errota zahar honetan sortzeko). Lerro diferentetan daude, eta esparru asko daude proiektu hauetan baina pixkanaka doa. Aurre proiektua dago egina arkitektoarekin, ze Austrian eta asko egiten dira horrelakoak, baina esan bezala, mantso goaz.</i>	Ez	Ez		Ez da Foru Aldundiaren eskumenekoa, baina edozein kasutan interesgarria iruditzen zaigu proiektu horren berri ematea Lurralde Orekako zuzendaritzari.
<i>Etxe bizitza eta plaza proiektua daukagu ere, eskaera batzuk ere baditugu, eta gure lehenetasun bat da oraingo honetan. 120 edo 135 mila eurotan saltzeko.</i>	Ez	Ez		Ez da Foru Aldundiaren eskumenekoa, hala ere gai honetan Lurralde Orekako zuzendaritzak langundu ahal diezazukete
<i>Lehen gure herriko batek moztzen zituen errepideko belarrak. Baina etorri zen lan inspektzio bat, eta salatu egin zuten. Baina orduz geroztik inor ez ditu kentzen eta lagundu ere ez.</i>	Ez	Ez		Ez da Foru Aldundiaren eskumenekoa

